

Liburutegiek oporroterako irakurgaiak gomendatu dituzte

Adinguztientzako ikus-entzunezko materiala ere bildu dute ' biblioporren gida ' 2006 delakoan

Bergara. Urtero bezala, Bergara, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako udal liburutegiek, Aramaio eta Legazpikoekin batera, Biblioporren Gida 2006 kaleratu dute. Bertan, adin eta gustu guztientzako liburuak eta ikus-entzunezko materiala proposatu dute. Ekimen honen helburua, jendea aisialdian irakurtzera bultzatzea da, batez ere, oporretako hilabeteetan.

Gida honek literatura tituluak biltzen ditu, bai euskaraz eta baita gaztelaniaz ere. Zerotik sei urtera bitartekoei kolorez eta marrazkiz beteriko ipuinak eskaintzen dizkiete. Gaztetxo eta gazteentzat, aldiz, abenturazko liburuak ere ez dira faltako. Hauen artean, Patxi Zubizarreta idazlearen Urrezko giltza izeneko obra, Antonio Amagoren Bemol Pispante: Un ratón en el piano, Jörg Müllerren El soldadito de plomo edo Itziar Ezquietenaren El cuarto prohibido.

Helduek ere hainbat proposamen dituzte eskura, besteak beste, Antton Duesoren Animaleko fantasiak, Maria Teresa Aretzagaren Eta dena katu beltz baten erruz edota Alberto Ladron de Aranaren, Arotzaren eskuak. Era berean, aurtengo berezitasun bezala, ikus-entzunezkoen gomendioak aurkitzen dira: Potemkin eta Rafa Ruedaren diskoak edo Sin City eta El método filma arrakastatsuen DVDak. >A.D.